



2022/2023 denboraldia

## 16. ZIRKULARRA

### **GIZONEZKO KADETEEN OHOREZKO MAILAKO LIGA TXAPELKETA**

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Ohorezko Kadeteen liga txapelketa honela antolatu du:

#### **1. KLUB PARTAIDEAK**

##### **GRUPO 1 TALDEA**

- 1 ANTIGUOKO K.E. "B"
- 2 HONDARRIBIA F.E
- 3 VASCONIA C.D. "B"
- 4 HERNANI C.D.
- 5 REAL UNION CLUB SAD
- 6 REAL SOCIEDAD S.A.D. "B"
- 7 BETI ONA C.D.
- 8 ARRUPE CHAMINADE C.D.
- 9 OIARTZUN K.E.
- 10 EUSKALDUNA S.D.
- 11 ASTIGARRAGAKO MUNDARRO FKE
- 12 LENGOKOAK K.E.
- 13 KOSTKAS K.E. "B"
- 14 OSTADAR S.K.T.
- 15 TRINTXERPE C.D.
- 16 ANTIGUA LUBERRI K.E.

##### **GRUPO 2 TALDEA**

- 1 AIZKORRI GOIERRI F.T.
- 2 BEASAIN S.D.
- 3 URKI C.D.
- 4 AMAIKAK BAT K.E.
- 5 LAGUN ONAK C.D.
- 6 EIBAR S.A.D. "B"
- 7 ORDIZIA K.E.
- 8 ZUMAIAKO F.T.
- 9 TOLOSA C.F. "B"
- 10 ARETXABALETA K.E. UDA
- 11 ANAITASUNA C.D.
- 12 ELGOIBAR C.D.
- 13 ILINTXA S.D.
- 14 INTXURRE K.K.E.
- 15 ORIOKO F.T.
- 16 DANENA K.E.

#### **2. LEHIAKETA SISTEMA**

Ohorezko Kadeteen liga txapelketa **32 taldek** osatzen dute 16 taldeko 2 multzotan banatuta. Fase bakar batean jokatuko da: puntuen bidez eta bi itzulietara (30 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federakuntzako Arautegi Orokorreko xedapenak jarraituko dira.

Multzo bakoitzeko lehen sailkatuek finala jokatuko dute zelai neutralean, mailako txapelduna izendatzeko.



Mailako txapelduna (finaleko irabazlea) **Kadeteen Euskal Ligara igo da**, beti ere **maila horretako beste talderen batekin mendekotasun edo filialtasun harremanik ez badu. Denboraldi honetan EZ DA JOKATUKO bigarren sailkatuak mailaz igotzeko 3x1**. Beharrezkoa izanez gero, multzo bakoitzeko bigarren sailkatuek 3-4 postua jokatu dute, kanporaketa bikoitzean, zelaiaren zozketa egin ondoren, mailaz igotzeko plaza libreak egonez gero, lehentasun ordena zehazteko.

**Kadeteen Gorengo Mailara jaitsiko dira multzo bakoitzeko azken hiru sailkatuak (3x2 = 6).**

### **3.IRAUPENA ETA ALDAKETAK**

Partidak 80 minutuko iraupena izango du, bost aldaketa egin ahaliko dira eta gehienez zazpi ordezko egongo dira aulkian.

### **4. JOKALARI INFANTILEN PARTE HARTZEA KADETE MAILAN**

**"Azken urteko ohorezko infantilek kadete mailan izena eman eta parte hartu ahal izango dute, honako irizpide hauek bete ondoren:**

- Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako eskaera arrazoitua, proposatutako jokalarien zerrenda zehatzarekin.
- Foru Erakundearen baimena, eskolarteko infantilek kadete mailako lehiaketetan parte har dezaten.
- Dagokion federazio-lizentzia tramitatzea.

### **5.PARTE HARTZE BIKOITZAREN ARAUZKO ONDORIOAK**

Aurreko puntuan deskribatutako baldintzak beteta, infantilen azken urteko jokalariek goragoko hurrengo kategorian parte hartu ahal izango dute, baina infantilen taldean lerrotatze desegokiaren okerra egingo da, asteburuan bi partidatan parte hartzen badute, nahiz eta egun desberdinetan egin.

### **6.DIZIPLINA ARAUDIA**

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.



## **7.XEDAPEN OROKORRA**

“Koltxoi” mailaren kontzeptua mantendu egiten da, eta beraz maila honetan egon daitezkeen plazak ondoren aipatzen den eran eta hurrenkeran beteko dira:

- a) Gorengo Kadeteetatik talde bat igota.
- b) Ohorezko Kadeteetatik jaitsitako taldeen artean ondoen sailkatu denaren jaitsiera saihestuta.
- c) Eta horrela behin eta berriro.

## **8. BABES OROKORRA**

Zirkular honetan xedatutakoa aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik, eta, 2022ko ekainaren 27an Batzar Nagusiak berariaz eskuordetuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izango du soilik lehiaketa gelditzea edo/eta lehiaketara itzultzea erabakitzeko eskumena, sortzen diren ezinbesteko arrazoiak kontuan hartuta; txapelketa denboraz luzatzea; lehiaketak pandemiaren amaierarekin bat etortzea, baita horrekin zerikusia duen beste edozein erabaki ere.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako, ezinbesteko kausak egiaztatutzat joko dira lurralde jakin batean gobernu-araudi edo -agindu bat dagoenean, eta, hala badagokio, eskumena duen justiziak behar bezala abalatuta, kirol-jarduerak garatzea eragozten duenean, dela edozein mailatako entrenamenduak, dela lurralde horretan partidak jokatzea, dela muga horiek dituen alarma-estatua dekretatu izana.

**Donostia, 2022ko iraila**

**GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA**  
**FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL**

  
Iñigo Letamendi Artetxe  
Idazkari Nagusia-Secretario General